

OSTADARRAREN KOLOREETAN ZEHAR

Ander Audikana

Gasteiz, 16 urte

Ur tanta umil bat besterik ez naiz, harat-honat estropozoka dabilen ur tanta xume bat. Hodeien arima nahaspilatuan irristakor eta jostakin ibili ohi den horietako bat, eta behin nekatuta, bere anai-arebekin batera bere burua amiltzen uzten duen horietakoa nauzue ni. Hodeirik hodei lehendabizi, eta hauetatik mendi gailurrera, jarraian, ezertarako betarik gabe, mendi magalean behera, haranaren bihotzera, edozein errekastoren bila, arnases-tuka, eta horrela, haranez haran, hiriz hiri edo ibairik ibai itsasora. Itsasotik gora, hodeietara berehala, eta hodeirik hodei lehendabizi, eta hauetatik mendi gailurrera eta... Halakoa izaten omen da ur tanta ororen bizia, neketsua zenbaitetan, aspergarria gehienetan eta motela eta luzeegia kasu guztietan, horregaitik, hain luzea denez gero ezinezkoa zait nere adina kalkulatzea. Badakit jakin ere zaharra naizela erabat, edozein hiri baino askoz gehiago, gizakia bera baino are zaharragoa, zuhaitzak nahiz udaberrikoak, nahiz udazkenekoak baino makina bat urte gehiago ditudala eta oraindik orain gogoan dauzkat gizakia kobazuloetan ibiltzen zeneko garaiak, eta baita gizakirik gabeko egunak, noiz, haien ordeztu, dinosaurio izeneko animalia erraldoiak bizi zirenekoa, baina pentsatzen jarrita, munduan bizitzarik ez zegoeneko ere

badatorkit burura, itsaso ikaragarri haundi eta geldo batek mundua menderatzen zueneko. Noizbehinkako lurrikarak edo sumendi baten biraoak eztul erabetiak besterik ez ziren, isiltasuna nagusi zeneko ordu haietan eta egun naizen tanta xume honek antzinako isiltasun hartatik garrasia ekarri zuen, kasik ezerezetik guztia, itsaso hutsetik bizia. Argi dago tanta umil bat besterik ez naizela, ia-ia ezer ez... eta hara non ia-ia guztia.

Arestian tanta baten bizitza neketsua eta baita aspergarria dela esan omen dut, eta egia esan, partez behintzat hala da, baina bestalde asko dira momentu ederrak, goraiatzeko modukoak. Orain dela ordu gutxi bezelakoa. Han nintzen ni itsasoaren astinduen esanetara, ezker-eskuin, gora-behera ninderamala eta non, halako batean, itsasoak uhin miresgarri bat sortzen duen haren tontorrean neu nengoelarik. Xaboi-burbuila arin bihurtuta ere ibili izan ohi naiz, edo umeak jolasean aritzen diren putzuetan disolbatua, baita azal leunak fereka, ostadarraren soinean, edo orain, hodeiak atzean utzi ditudan honako honetan bezela noraezera amilduz ausartzen den tanta umil horietako bat ari zaizue hizketan.

Esan bezala, eta esan ez badut orain dut momentua, dagoeneko badira pare bat minutu hodeiei "gero arte" bat luzatu ondoren erortzen hasi naizela eta erorketarekin batera prozesu amaigabea hasi berri dut beste behin. Beste behin itsasora. Baina hara heldu aurretik litekeena da, haranez haran noalarik espezie desberdinetako animaliekin topo

egitea, ikusiko ditut astoa eta mandoa baserrian, lehoia eta lepaluzea, eta nola ez, elefantea ohianaren zain orlegietan, apika suge zelataria basamortuan, marrazo beldurgarria itsaso hondoan, foka, aldiz, ur izoztuetan eta legatza saltzan. Baita animalietan animaliena: gizakia; txikiak eta haundiak, bulardunak eta buztandunak, arraza anitzekoak, ameslariak eta pesimistak, zentzuzkoak eta erotuak, beldurtiak eta heroiak, alferrak eta langileak, erlijio askotarikoak, ohitura ugarietakoak, hamaika hizkuntzetakoak... azken batean gizakia bere aniztasunean, neurri, kolore eta usain desberdinetako loreen loratzea. Eta ura da aniztasun hau lotzen duen elementua, bera izango da txikiaren ezterrian dagoena, ameslariaren mihian dabilena, erotuaren hatzamar izerdituetan zehar abiatzen dena, beltzaren eta horixkaren begietan dizdiratzen duena, ura da gizakiak harremantzen dituen, beraien aniztasunean berdintzen dituen eta beraien artean maitatzera daramatzana, are askeagoak izatera laguntzen diena funtsean. Ur gazia, ur geza, ur beroa, ur hotza, bustitzen duena, ur barruan ur, ur ere haren inguruetan, itxura zehatzik gabekoa baina urrunean ur eta ur ere hurbilean, eta uraren gunea ur tanta... Ur tanta? Jaunandreak, uste dut aurkezteko ordua iritsi zaidala. Tanta umil hau da zuen batasuna, ongi behatuz gero, nere dizdira koloretsuan aurkituko duzue askatasunaren ohiartzuna.

Hodeiak utzi eta erortzen hasten naizen bakoi-tzean, nora helduko naizen imaginatzearekin bate-

ra iraganeko zertzeladak datozkit burura, ez dakit jauzialdian erlaxatzen edo aspertzen naizelako izango ote den, baina egia esan zehazki errepikatzen zaizkit gomuta horien irudiak eta horregatik, ohiturari eutsi nahian edo, gaur ere oroitzen hasia naiz pasadizu horietako batez. Kontatuko dizuet bada, ea horrela ohartzen zareten aipaturiko nire dizdiraren lehenengo koloreaz, eta ea horrela ez naizen lokartzen jauzialdi honetan zehar. Ea bada.

Zeruak galdua zuen egunez zegokion urdintasuna, eta haren ordeztu bioleta kolore indartsu bat zebilen goialde haian, linternak piztu eta Gubdalaren begiak argiztatu zirenean. Baziren pare bat aste Gubdala Oran atzean utziz Argeliatik alde egin zuela. Zaila egin zitzaion oso bere gurasoak agurtzea, bere anai-arreba Abdil, Kalama eta eguna elkarri zirika igarotzen zuten arren Malimez agurtzea ere gogorra egin zitzaion, lagunak agurtu zituen eta baita laguna baino gehiago zen beste hura ere. Baina Gubdalak aspaldidanik izan nahi zuen margolaria eta hori lortzeko abian jartzea zuen nahitaezkoa. Gisa honetara bere bizitzako lehen hamazazpi urte haiek igaro zituen paraje haiei bizkarra emanaz, ekin zion bideari. Maroko gurutzatu zuen batetik bestera, berak uste baino azkarrago eta era egokiagoan, eta Tangerang aldean segituan egin zuen itsasoarekin topo. Nola edo hala gurutzatu nahian zebilela, gogo beretsuz zebiltzan beste zazpi marokoarrekin harremanetan jarri zen eta hauek beste hiru bidaiari behar zituzten patera ordaindu ahal izateko, ezpairik gabe

proposatu zioten Gubdalari taldera batzea. Egunak joan egunak etorri beste ameslari anonimo horietariko bat ailegatu zen inguru haietara, Gubdala antzera Argeliatik etorritakoa zen hau ere. Hitz eta pitz aritu ziren Gubdala eta Abdal izeneko Argeliar etorri berria eta, hura ustekabea, beraien aitak lehengusuak zirela konturatzean. Ez zuten inoiz harreman haundirik izan, Argelia zabalean barrena batzuk besteengandik nahikoa urrun bizi baitziren, baina arazoak bai han, bai hemen arazo ziren eta horrez gain, ameslariak nonahi Argelia zabalean, nolana ere, ba ote zen kontinente galdu hartako txokorik galduenean ameslari eskasia?

Hizketaldia izan eta handik bi egunetara, osatzeke zegoen taldea osatzea lortu zuten beste Marokoar baten agerketa zela medio eta patera saldu zien Melillarrari dirutza bat ordaindu ondoren itsasoratu ziren zortzi Marokoar gazte eta bi Argeliar are gazteago, kontinente zahar hartan luze ugalduz joandako ametsak errealitate bihurtzeko. Halere, itsasoratu ondoren jazo zeneko ezer gutxi gogoratzen dut, ziurrenez hainbeste izan direnez toki berean itsasoratutakoak, eta hortaz, hainbeste nik ezagututako gertaera tamalgarriak, nahastu egin ditudala beraien artean eta ez dakit Gubdalari gertatutakoa Mazda! Marokiarrari aste bat lehenago gertatutakoa izan zen, edo alderantziz, edo Litari gertatutakoa ere ez dut gogoratzen duela zenbait hilabete edo Afdali gertatutakoa, edo Dalo anai-arrebei... Modahal ote zen duela hiru urte tirokatu zutena? Nor ariko da instant

hauetan igerian? Asko dira aurpegiak, gehiegi ohi-tuak.

Oroitzen dudan bakarra linternak piztu eta Gubdalaren begiak argiztatu zirela da. Haren aurpegian itsasoko uraren arrastoak nabariak ziren oraindik eta ni nintzen haietako bat, ameslari haren aurpegian zintzilikatuta. Linterna gehiago piztu ziren orduan, eta gehiago argiztatutako begiak. Poliziek hamar gazte haien begiak itxi zituztenerako zeruak galdua zuen bioleta kolorea eta haren ordeztu beltza inposatu zen sortaldetik sartaldetara amesgaizto baten gisara.

Tanta umil hau makina bat ikusitakoa da, baina era berean, ikusitakoaren herena behintzat dagoneko badu ahaztua eta aztertzen jarrita, zinez ahortzi denaren hiru laurdenak edo, erdi nahastu erdi korapilatuta. Horiek horrela, ez zaitezte zeharo fida diotsuedanaz, zuen batasuna naizela ulertarazi nahi dizuedan honetan eta oraindik lurrerartzen naizen honetan, nahiz eta iruditzen zaidan, berehala kontatuko dizuedan kontuaz oso ongi gogoratzen naizela. Hor doakizue bada, nere distiraren beste kolore bat eta bide batez, nere memoria higituagatik barkamena.

Urdin zegoen putzua zeruaren ispilua besterik ez baitzen. Zahagia bete aurretik, eskuak eskaleek egiten ohi dutenaren antzera bildu eta putzura murgiltzen ditu Nestorrek, eta badirudi zerua dardaran jarri duela, baina ez, ez da mugitzen dena, ura baizik. Ulertzekoa da haren egarria eta baita haren beroa ere, egindako ibilaldia behinik behin

bi ordutakoa baita, laua, aldaparik gabea egia esan, baina luzea eta eguzki izpien zitzaden artean luzera hori amaierarik gabea bihurtzen dela. Dena dela Nestor jada gizon peto-pettoa egina dago hamasei urte betetzear dagoela eta ohituta ere, sarritan putzuraino hurbiltzeaz, izan ere, hamaika urte zituenez geroztik bera da etxera ura garraiatzeaz arduratzen dena eta egunero joan-etorria birritan burutzen duenez gero, aski ohituak ditu oin biluziak lehortek eragindako zoru zartatu haretara eta oinen neurrian ere azal beltzarana eguzkira.

Blaitu berriko aurpegitik, ur tantak din-dan, din-dan, jario zaizkion arren, zahagi betea sokaz sorbalda gainera lotu, gorputza jiratu eta ibiltzeari ekin dio berriz ere, bere aitonaren aholkuak dion bezala hobe baita basamortuko eguzkia zelatan denean arin ibiltzea, geldi geratzekotan azkar eskuratuko baitu momentua zu lurrintzeko. Pausoz pauso putzutik aldenduz doa, eta zahagiak bost kilo inguru pisatzen dituen arren ez du aurpegian neke isladarik. Argi dago Nestor ohiturik dagoela halamoduz ibiltzera, batetik bestera, putzutik etxera eta etxetik putzura. Hori da bere lan nagusia, eta horren bitartez bere guraso, aitona eta bere bi arreben egarria asetzen du egunez egun. Halere batzutan, eurite garaia heltzean, ez du putzuraino abiatu beharrik, euria bi egunen buruan bederen mardul aritzen da eta; gaixotzekotan normalean ere ez da abiatzen eta egun horren ibilaldia aita ez bada, amak betetzen ohi du; beste batzutan, urtean

behin bere anaia Mario, Gubdalaren eta beste askoren antzeko ameslaria dena, bisitan datorkiela probetxatuz, hark burutzen ditu astebeteko joan-etorriak. Baina salbuespenak salbuespen Nestor da urtean zehar bide bera egiten duen bakarra, eta horregatik ulertzekoa da jada ohiturik egotea.

Bueltako bidearen erdia ibilia du, eta jada ez zaizkio aurpegitik din-dan erortzen ur tantak, hezetasun guztia lehortu baitzaio honezkero. Arin sentitzen du bere gorputza, indartsu eta zamarik gabea, zahagirik ez balu bezala, horregatik eskua-rekin talka egiten dio badaezpada eta supituki gelditu beharrean dago nabari baitu ura erortzen joan zaiola. Gorputza biratzeaz batera, jausitako ur arrastoren bat topatzen saiatzen da, baina alferrik da, ur tantak zorua jo aurretik lurrintzen joan baitira. Nestorren begirada eguzkira zuzentzen da eta «lapurra» oihu egiten dio. Eguzkia haserretu eta begietara tiro egiten dio, eta laister Nestorren aurpegitik behera badoa malko bat, neu, hain zuzen ere, eta aurpegiaren ertzetik salto eginez, zorua ikutu aurretik lurrintzen naiz

Nestor berriro jartzen da putzurako bidean, ohituta baitago beti zoru zartatu hartara, bai bero ikaragarrira, baita negar egitera ere. Bere sorbaldetan zahagia ezezik, zeru agitz urdin bat darama, urdinegia beharbada.

Edonon dira mugak, zenbaitetan, Gubdalaren eta Nestorren kasuan bezala begibistakoak. Askotan, ordea, muga geografiko edo klimatikoez gain badira beste muga klase batzuk, ameslarien

mundua boteretsuen errealitatetik bereizten dituztenak, eta ni naiz ere azken hauek apurtzen dituen eta itxuraz desberdinak diruditenak berdintzen dituen. Tanta umil hau harrotzen hasi zaizuela dirudien arren, diodana egia da. Heldu iezaiozue nire distiraren hurrengo koloreari.

Oihal berde bustiarekin zauria garbitzen zuen Mailkak, ispiluan ageri zen aurpegia ezagutu nahian zebilela. Aurpegia azal beltzaranekoa zen, ez guztiz ordea, ezkerreko begiaren azpikaldean kolpe baten aztarna ageri baitzen, ubeldura bat eta horrez gain, bekokian zauri bat, beste kolpe baten ondorioz sortua nonbait, baina honako hau begi azpikoa baino gazteagoa, edo behintzat, hala ematen zuen ulertzerako kopetan barreiatzen zen odol jarioak. Mailka harik eta oihal berdeak zauria nola partez estaltzen zuen ikusi arte, ez zen jabetu ispiluko aurpegia berea zenik.

“Egia esan ez da hainbesterako –hasi zitzaien Mailka bere buruari, zauria garbitzen zuen artean– kasik ez du odolik ere isuritzen eta. Pasaden asteakoa, oraindik guztiz sendatu gabe daukat eta ikutzuz gero...ai! Ikutzuz gero min ematen dit, baina jada ez da hain nabaria. Baietz gaurko zauria pasaden asteakoa baino lehenago osatzen dela, ziur etzizurako sendatu egin zaidala. Eta dena nire erruagatik, berarekin ezkondu nahi ez izanagatik... eta gainera amak aurrez aholkatu ninduen arren, nik nirearekin jarraitu dut eta tori! Iragandako astean aitak erakutsi zidan, eta gaurkoan, berriz, berak jo nau. Merezia duzu Mailka emakumearen betebe-

harrak ahazteagatik! Noiz sartuko ote zait buru baldar honetan emakume bat besterik ez naizela? Emakume bat besterik ez. Bihar bertan joango naitzaie, lehenik aitarengana eta arratsalde berarengana, gutxi barru nire senarra izango denarengana, eta biei eskatuko diet barkamena. Nire aita gaitxoak ez du halako alaba lotsagabe baten beharrik, eta era berean, nik ez dut senar bat merezi, ez hau, ez besterik, ezta India kanpokorik ere. Emagaldu nazkante bat besterik ez naiz. Amaren hitzak hain zeuden jakinduriaz beteak, ez dakidala nola ez nuen lehenago haien zuzentasunean erreparatu «Mailka, emakumea zarenez gero, utzi izeaiezu gizonei erabaki hauek hartzen, soilik haiek baitakite zer den zuretzako komenigarriena». Arrazoi zuen. Eta nik ere arrazoi dut, ez dudala ez halako aitarik, ez amarik, ezta halako senarrik ere merezi diodanean. Merezi dudan bakarra aurpegiko zauri hauek dira.”

Baliteke Mailkak bere buruari adierazi zion bezala, garbitzen ari zen zauria haundiegia ez izatea, baliteke...baina oihal berdea gorri bihurturik zegoen harrezkero. Zauri aldean ni nenbilen berau garbitzekotan, ezer gutxi garbitu edo sendatu nuela badakit, aitzitik, zikindu, osorik zikindu nintzen haren odolarekin.

Askotan iruditzen zait, noizpait lortuko dudala nola edo hala, gizakia bide onetik eramatea, baina halakoetan ideia iraultzaile horrek forma hartu aurretik, ezabatuta geratzen da, gehienetan beste muga baten agerketa dela bide. Horregatik asko-

tan, nere betebeharra ahazteko eta gizakia zokoratzeko gogoak biltzen nau, tanta umil honek aukeraketa hori egiteko askatasunik ez duela konaturatuz, berriro ere lanean jartzen naizen arte. Honezkero jauzialdia bukatuta egon beharko zuela egia den arren, gaurkorako lana amaitzea gustatuko litzaidakenez, horra hor jarraian dagokigun kolorea.

«Non ostia dago giltza horixka madarikatua!» zioen ahopeka Stevek bere etxeko atari parean zegoela. Eskuetan giltza sorta bat zerabilen eta estudiokoarekin, txirrindulakoarekin, kotxekoarekin, eta beste askorekin batera bertan beharko zuen egon. «Hemen izan behar du, baina argi eskas honekin ez dut piperrik ere ikusten!» errepikatzen zuen bere buruarekiko oraingoan. Arrazoi zuen Stevek argi gutxi zela esatean, baina ezinbestean topatu beharko zuen giltza horixka, mehatxuzko garrasiak segunduz segundu inguratzen ari baitzitzaizkion.

Stevek gaua Robertekin igaro zuen “The End” izeneko pub batean. Hirian beste zazpi lokal egon bazeuden arren, hura zen homosexualentzako gunerik garrantzitsuena eta jada urte bat bazen astebururo leporaino betetzen zela, hiriko zonalde guztietatik eta herrietatik zetorren jendeari esker. Ohiturari jarraituz, Steve eta Robert larunbat gau hartan ere bertaratu ziren, zertxobait dantzatzera, zeozer edatera eta zergatik ez, jende berria ezagutzera. Hirurak aldera, ostera, etxeratzeko ordua heldu zela erabakiz elkarrekin egin zuten itzulia.

«Etorriko al zara, gaur gauez nere etxera?» proposatu zion Stevek eta atariko giltza horixka eskuan pausatu zion gonbidapena indartzearren eta ezezko erantzun bat ekiditzea helburu zuela. Baina alferrikakoa izan zen Robertek lan eguna zuelako hurrengoa. Horrela bada, kalegurutzearan agurtu ziren eta bakoitzak bere etxerantz zuzendu zituen pausoak. Zertxobait aurrerago Steve ohartu zen norbait jarraika zuela, soilik bi itzal iruditu zitzaizkion zihoazela espaloiean, baina ibiltarien zarataren arabera baliteke hiru ere izatea, agian lau. Hurrengo kalegurutzera ailegatu bezain pronto Steve arrapalada bizian irten zen etxe atarirantz.

«Marikoi zikina, hireak egin dik» Stevek mehatxuak gero eta gertuago entzuten zituen eta orduan eta ozenkiago bereganatzen bere bihotzaren taupadak, eta orduan eta izerdituagoak nabaritzen eskuak, eta are zailagoa tankera honetan giltz sorta behar bezala maneiitzea. Hala eta guztiz ere, ez zuen amorerik emateko asmorik eta bertan jarraitzen zuen giltz horixkaren bila. Ezpain lehortuak umeldu nahian, haietara mihia eramaterakotan, Roberten zaporea nabaritu zuen ni bezalako listu tantei esker eta agurtzean emandako musuaz oroitu zen. Horrela gogoratu zuen, Robertek alkandoraren poltxikoan utzi ziola, berak lehenago egindako gonbidapenean emandako giltza horixka.

Eskua poltxikora eraman, giltza horixka salbatzailea topatu eta atea zabalduz atarira sartu zen. Atea bere atzean itxi eta hormaren kontra ezarri

zen. Kanpoaldean pausoak entzun zituen eta urrutiratzen zirela ohartu zen. Haien ahotsak ere aditu zituen eta esaldi mozturen baten jabe egin zen: «Honek ihes egitea lortu du, ea behintzat bestea harrapatu duten». Hori entzutean Steveri eskuen izerdia areagotu zitzaion zertxobait, nahikoa giltz horixkak lurrerantz ihes egin ziezaion.

Egia esan behar badut nik ezin dut gizakien joka-era ulertu, gaurdaino ez behintzat eta oso oker ez banago gaurdanik ere ez. Konplikatu da gizakia, izaki bizidunetatik konplikatuen, konplikatuegia ziurrenez eta ondorioz, nik burutu behar dudana batasuna ez da lan erraza, baizik egitasmo konplikatuegia, kasik utopia bat. Saiatu gaitezen baina, errua txuliatzeko eta larruan gozo bizi izateko ez bada ere.

Jantzi laranja bat zuen jantzita. Azken zazpi urtean eramandako jantzi bera. Hiru gazte hil zituen jantziarazi zioten. Mariam eta Kathyri tiro bana, bi tiro, aldiz, Benentzat. Ez zegoen dudarik, erruduna zen eta ordaindu beharra zuen. Gobernuak dioenez ez du merezi halako gizakik bizitzetik, ez eta haietaz hitz egiterik. Horregatik, nire hitzak neurtu eta ni nengoen xiringaren soinuari paso emango diot... minutu batzuk geroago isiltasuna nagusitu zen gela hartako eremu guztietan. Pentsatu bezala, pozoiak, hots, ni eta beste sustantzia batzuek, berehala gelditu genuen bihotz hura. «Erantzi iezaiozu jantzi laranja» esan zuen bertan zegoen norbaitek. Zazpi urte atzerago, hilketa gaitzesgarri baten bidez lortu zuen jantzia, gaurkoan

galduko zuen, aurrekoa bezain gaitzesgarri zen hiletaren truke.

Sei kolore dira ostadarrarenak: bioleta, urdina, berdea, horia, laranja eta gorria. Hauek dira ur tanta anitzetatik sortzen diren koloreak, eta gaurkoan nik ekarri ditudanak hizpidera. Jakin badakit, zuetako askok ostadarra, han, han urrutian ikustean, soilik begirada arin bat luzatzen diozuela, ez zaizue axola, ez da zuen arazoa; bakan batzuei, gutxiengo bati halere, haren koloreaz erabat liluraturata, haren bila abiatzeko gogoia datorkizue, baina laister konturatzen zarete, inoiz ez duzuela ostadar urrun haren inguruetara heltzerik izango, «hori utopia bat besterik ez da» entzun daiteke zuen burmuinetan. Baina erraturik zaudete guztiz, lagunak. Baldin eta diodana entzuten baduzue eta ur tanta umil honen bidez muga guztiak higitzen badituzue, ur tantak pausatuko dira zuengan eta eguzki izpien laguntzarekin, jada utopia ez da izango ostadarra, baizik zuek haren utopia. Minutu barru nire eroraldia amaituko denez gero, goazen korrika bizian azken kolorearen bila.

Pilula hartzeko jaiki zenean goizeko zazpiak jo gabe ziren. Paula sukaldera bideratu zen, bertan gordetzen zituen pilula kaxa guztien artean goiz hotz hartan egokitzen zitzaiona aukeratzeko asmoarekin. Kaxak hartu eta utzi zebilen eta ez zuen inondik inora hartu beharrekoa zein zen gogoratzten. Pilula berdea hartzekotan izan zen, baina dudamudatan zegoenez eta gainera hura zenez, zapore mingots harekin, gutxien atsegin zuena,

birritan pentsatu eta pilula berdea berriro ere kaxan sartuz, gorri kolorekoa eramane zuten orain. Ur baso baten bidez lagundu zion eztarritik igarotzen ni nengoen ur basoaren bidez.

Ez zen erraza hainbeste kontu ondo eramatea, hainbeste izanik hartzeko zituen sendagailak. Gaurkoan ez zen goizegi jaiki, aitzitik, azken egunetan, goizeko hiruretan altxatzea ezinbestekoa gertatu zitzaion pilula madarikaturen bat hartzearekin. Baina huskeria bat zen pilularen kontu guzti hori. Paulak ihesduna zenetik gehien gorroto zuena, hitz egiten zuten begirada guzti haiek ziren. «Auskalo zertan ibiliko ote zen!» edo «banengoen ba ni ez zela fidatzekoa», halakoak aitortzen zuten begirada haiek, bazirudien ere gaixotasunaren errua berea zela, berak bilatu zuela, begirada haiek mespreziagarriak ziren. Hiesa ez zen gaixotasun arrunt bat, zeozer gaizki egiteagatik jasotzen zen zigorraren tankerakoa zen. Hori zen gehienbat Paulak gorrotatzen zuena eta bazekien begirada horien bitartez muga bat jaiotzen zela hiesdunen eta besteen artean. Horrez gain, hain zen txikia herri madarikatu hori, herritar orok zekila bere zorigaitza eta kaleetan zehar zihoanean iruditzen zitzaion begirada guztiak beregana zuzentzen zirela, ibai guztiak beregana doazela konturatzen den itsasoa bezala sentitzen zen.

Gogoetak moztu beharrean izan zen, bat batean botagurea azaldu baizitzaion eta komunera korri eginez, ozta-ozta eman zion denbora komuneko tapa altxatzeko, pilula gorria eta edandako ura

bota aurretik. Goiz hotz hartan, urdaila nahastu zioten pilula madarikaturik ez hartzea erabaki zuen lanera abiatu aurretik. Gorrotatzen zituen begirada haiekin, ordea, ezin izango zuen gauza bera egin. Lastima.

Ur tanta umil bat besterik ez naiz, soilik bere betebeharra kunplitzea nahi duen ur tanta, soilik mendiak eta teilatuak, hesiak eta kostaldeak igatu nahi dituen, gizaki guztien egarria berdin hasetzen duena, ostadarraren distira gordetzen duena, hitz egiten ari zaizuen eta hodeietatik salto egiterakoan hasi duen bidaia, berehala amaituko duena. Hitzak agortu zaizkidan honetan, noizpait norbaiti entzundakoak beteko du hutsune hau, «batasuna aniztasuna da, eta aniztasuna batasunean legerik gorenena».

Erori naiz jada... baina zer demontre da hau... hau ez da ez olatu bat, mendia ezta... zer da leuntasun hau? Nola da posible hain askea sentitzea, Iupa! Halakoa behar du izan zuen bideak, askea eta atsegina... hala helduko zarete ostadarrera, goazen bada! Iupa! Luma bat dirudi, honako hau, agian hego bat arina eta askea, zatozte azkar!

Udaberria heltzear, negua igaro ondoren, hegazti-saldo desberdinak abiatu ohi dira beraien jatorrietara. Hiri grisak eta mendilerroak, zuhaitzak eta lautadak batetik bestera igarotzen dituzte, eta nola ez, ibaiak eta itsasoak ere inolako zerga edo mugarik gabe. Migratzaileak direla diote zientzilariek. Baina non ote daude zeharkatzen dituzten mugak? Ez daude. Hegaztiak haizearen erreinuan

bizi dira, zeruan, hodeien tartean, mugarik gabeko lurraldean. Hura da haien etxea, eta han biziko dira, iparraldetik hegoaldera, mendebaldetik ekialdera, hegaka, askeak direla erakutsiz, eta behean, lurrean dabilzan izakietan bekaizkeria landatuz.

Gaurkoan, hegazti multzo bat igaro da hegoalderantz doala. Erritmo leunez eta melodia gozo baten dantzariak dirudite, dantzari bakoitzak aski ondo daki egin beharrekoa eta malgutasun osoz mugitzen da haizearen arpegiotan zehar. Hegazti bakoitzak bere aurrekoaren arrastoa jarraitzen du eta badirudi ados direla egin beharreko guztian. Hegazti-saldoa haizearekin dantzan dabilen gezi bat da. Lehen euri tantak agertu direnerako, gezia ostadarrera zuzendurik aurkitzen da jada, eta urrunduz joan dira, arik eta haien lumetan ostadar beraren distirak agertu diren artean. Ostadarraren koloreetan, kolorez kolore dabilza euri tantatan dilindaka. Aniztasuna batasun deneko atean, eta muga guztiak garaitzen dituen zubi koloretsuan galdu dute dagoeneko arima.

Hain zaila ote da?